

# DRAPETOMANIA, IHESAREN GAITZA



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

New Orleans (AEB), 1851. Samuel A. Cartwright medikuak idatzitako *Diseases and Peculiarities of the Negro Race* (Arraza beltzaren gaixotasunak eta berezitasunak) artikulua argitaratu zen *New Orleans Medical and Surgical Journal* aldizkarian. Bertan, berak izendatutako gaixotasun baten berri jaso zuen: drapetomania edo gatibutzatik ihes egiteko gogo. Ustezko gaitza esklabo beltzen artean oso zabaldua zegoela zioen, eta prebenitu eta sendatzeko aholkuak ematen zituen.

Batetik, ondo trebatutako sendagilea zen Cartwright. John Brewer doktoarearen aprendiz gisa hasi zen lanbidea ikasten. Ondoren Filadelfiako Benjamin Rush medikuaren apopilo izan zen eta, azkenik, Pennsylvaniako Unibertsitateko Medikuntza Eskolan osatu zituen ikasketak. Gerora AEBetako presidente izango zen Andrew Jacksonen zirujau ere aritu zen. Bestetik, konfederatu porrokatua zen; beltzak zuriak baino gutxiago zirela uste zuen eta hori zientifikoki frogatzen ahalegindu zen, abolizionisten aurka egiteko.

“Gizon zuria”, zioen artikuluan, “Jainkoaren borondatearen aurka, menpeko beltza bere mailara jasotzen saiatzen bada, edo Jainkoak beste gizakiarengan eman dion botereaz abusatzen badu [...] beltzak ihes egingo du; baina jabeak esklaboa Bibliak esaten digun tokian atxikitzen badu, hau da, mendekotasunean;



Esklaboak kotoia biltzen. Samuel A. Cartwrightek (1793-1863) gaixotasuntzat jo zuen esklaboek ihes egiteko eta aske izateko zeukaten grina, eta drapetomania deitu zion ustezko eritasunari. ATLANTA BLACK STAR

eta jabea bihozbera eta errukitsua bada, haren nahietara egokitu gabe, eta haren behar fisikoak ase eta gehiegikerietatik babesten badu, beltza liluratuta geratzen da eta ezin du ihes egin”.

Beraz, errua ez zien esklaboei egozten, haiei “tratu xumeegia ematen dieten eta berdintzat dituzten” jabeek baizik. “Haurrak bailiran jokatu behar da haiek, iheserako grina prebenitzeko eta sendatzeko”. Esklaboren baten ihesa hurbil sumatuz gero, “barruko deabrua zigorraz ateratzeko” gomendatzen zuen “prebentzio neurri” gisa. Baina batzuetan

prebentzioa ez zen nahikoa, eta behatz lodien anputazioa gomendatzen zuen kasu larrietan, esklaboa lasterka ihes egiteko gai izan ez zedin.

Esklaboen “alferkeria” ere patologia mentaltzat zuen Cartwrightek, eta izena jarri zion: *Dysaesthesia aethiopica*.

AEBetako hegoaldeko estatuetan zabal-kunde handia izan arren, iparraldean barreragari utzi zituzten haren teoriak. Frederick Law Olmsted arkitektoak 1856an idatzi zuen langile zuriek ere iheserako joera zutela eta gaitza ziurrenik europar merkatariak eraman zutela Afrikara. ■



CLEVELAND CLINIC

## Izen okerreko odolbideak

Gorpuetan, arteriak hutsik egon ohi dira. Horregatik, Antzinako Grezian, Praxagorasen garaiko (K.a. IV. mendeko) medikuek ez zuten uste handik odolak zirkulatzen zuenik, aireak baizik. Horregatik *artheria* izena eman zieten (“aire-hodia” esan nahi du).

Galenoren (K.o. 129-199) garaitik oker zeudela eta arterietatik odolak zir-

kulatzen duela jakin arren, odol-hodi horiei ez zitzaien izena aldatu.

Eta jatorrizko esanahiari eustez gain “arteria” hitza bestelako bideak ere izendatzeko erabiltzen da gaur egun. XIX. mendearen hasieran ibaien sareak izendatzeko erabiltzen hasi zen eta, aurrerago, trenbideak eta errepideak izendatzeko ere bai. ■